

Haur Eskolako 2023/2024 ikasturterako matrikulazio-epea

2023/2024 ikasturterako, **2021ean, 2022an eta 2023an** jaiotako haurrak matrikulatzeko epea **apirilaren 17tik 28ra** arte egongo da zabalik.

Matrikula egiteko aurretik ordua eskatu behar da 943361216 telefono zenbakira deituz edo haureskola@udarregi.eus helbidera idatziz.



Tanta boletok

Jakinarazten dugu, familia bakoitzeko ikasle zaharrenari gaur bertan banatuko diogula txartela.



Apirileko jangelako menuak

Hau da apirilean jangelako bazkaldarrek izango duten [menua](#).

Hauek dira alergia edo intolerantziadun bazkaldarren menuak.



Apirilerako eta maiatzerako tailerrak

Hitz Aho guraso elkartearen eskutik, ondorengo tailerrak izango ditugu apirilean eta maiatzean:

"Familiako gatazkak eta estresa kudeatzeko pilulak" tailerra **Nerea Mendizabalen** eskutik, Aldundiko *Treba gurasoak* programaren barne.

Eguna: **Apirilaren 27an**

Ordua: **17:30-19:00**

Non: **Potxoenea eraikinean.**

Plaza mugatuak dira eta **izen-ematea usurbilkultura.eus**-en egin daiteke.

Hitz Aho guraso elkarteak, Udarregi ikastolarekin eta Usurbilgo udalarekin batera, **Miren Ros** gonbidatu du, **pantailen erabilera egokiaren inguruan hausnartzera.**



Ikasturte horretan, LH5, LH6 eta DBH1ko ikasleek formakuntza jaso ostean, **Mirenek geletan ikasleekin landutakoa azalduko digu gurasooi** eta talde eragilearen berri ere jasoko dugu.

Azkenik, interesatu orok kezka plazaratzeko eta lantzeko aukera izango du maiatzaren 2an.

Datak:

Gurasoekin: **apirilaren 25ean, 17:30ean Udarregi ikastolako jangelan.**

Herriarekin: gurasoak, irakasleak, hezitzaileak, teknikariak, interesatu oro, **maiatzaren 2an Potxoenean (17:00-18:30). Tailerrera gonbidatua Zarauzko taldea: Gure aukera, guk 16.**

Azterketak euskaraz manifestaldia

Urte luzeetako ikastolen borrokari esker, Ipar Euskal Herriko ikasleek Brebeta (DBH3n egiten den frogak) euskaraz izatea lortu da. Baina gaur egun oraindik Baxoko frogak (Frantziako selektibitateak) osoki frantsesez egin behar dituzte gure ikasleek, nahiz eta ikasketa guztiak euskaraz egin!

Ikastolei esker, geroz eta gehiago dira euskaraz ikasten duten ikasleak. Baina aldi berean, askoz gehiago dira Frantziatik Ipar Euskal Herrira bizitzera heldu diren frantsesak, euskara eta euskal kulturarekiko inolako sentikortasunik ez dutenak.

Benetako hizkuntza politika ausarta behar du euskarak Ipar Euskal Herrian. Apirilaren 22an Frantziako Gobernuari, Akitania, Pirinio Atlantikoei eta Euskal Elkargoari mezu argia helarazi behar diegu: Euskarak bizi behar du eta horretarako Euskararen Hitzarmen berri bat lortu behar dugu.

Azterketa guztiak euskaraz izan daitezzen lortu behar dugu! Animatu! apirilaren 22an arratsaldeko 5etan Baionan egingo den manifestaldira!



LEHEN HEZKUNTZA

Zorriak LH3

LH 3ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



Irteeren kobrantza

Datorren ostiralean, apirilak 28, LH 6. mailako ikasleen hainbat irteera kontu korrante bidez kobratuko direla jakinarazten dugu. Kostua **35,20 €** izango da, xehetasunak hauek dira:

- Zumaiako flysch-era:
 - Autobusa: 3,03 €
 - Sarrera: 7,72 €
 - **Guztira: 10,75 €**
- Donostia, Batasunaren bidea ekimena:
 - Trena: **2,15 €**
- Kurtso amaierako irteera:
 - 2. Zatia: **22,30 €**



Era berean, **LH4 eta LH5**. Mailako ikasleei Batasunaren bidea ekimeneko trenaren kostua kobratuko zaie **apirilak 28an**, hau da, **2,15 €**.

DBH

DBH 4ko familiei oharra

Jakinarazten dugu 2023/24 ikasturterako Batxilergora sartzeko aurre-matrikula epea **GAUR bukatzen dela**.



DBH 3ko familiei oharra

Ikasturtea aurrera doa eta DBH3ko ikasleek DBHko 4. mailako arlo jakin batzuen arteko hautaketa egin beharko dute. Irakasgai horiek ondo aukeratzeak badu bere garrantzia, ikastolako etapa amaitu ondoren gure etorkizuneko planei erantzun behar dietelako.

Hau guztia azaltzeko bilera bat prestatu dugu, zein arloren artean aukeratu behar den, zein komeni den hautatzea, zergatik... eta abar aztertzeko.



Eguna: apirilak 26, asteazkena

Ordua: euskaraz 17:00etan eta gazteleraz, berriz, 18:00etan

Lekua: DBHko eraikinean